



AUTOBUS ZERBITZU MURRIZKETEN KONTRAKO MOZIOA

ZIOA

Honako idazkia bihoa bere tramiterako
Soc. E. / Alva
Pase el presente escrito al Negociado de
..... para su trámite
2017 AZA: 08 NOV: 08

LASARTE-ORIA.....

IDAZKARI OROKORRAK

2017ko irailaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak" izeneko bidaiarien garraio erregularreko emakida berriaren zerbitzuaren aurreproiektua argitaratu zuen.

Lasarte-Oriari dagokionez, garrantzitsu, ugari eta eragin handikoak dira aurreproiektuak planteatzen dituen murrizketak. Aipatu ditzagun:

- Lasarte-Oria – Ospitaleak: %46ko murrizketa lanegunetan. Larunbatetan zerbitzurik ez.
- Lasarte-Oria – Donostia: %25eko murrizketa asteburuetan.
- Lasarte-Oria – Donostia (Amaratik): %25eko murrizketa lanegunetan.
- Lasarte-Oria – Andoain: %25eko murrizketa lanegunetan.
- Lasarte-Oria – Hernani: %46ko murrizketan asteburuetan.
- Lasarte-Oria – Tolosa: %50eko murrizketa lanegunetan.

Agerikoa da zerbitzu honen lizitazioa ez dela egin kontuan edukita Administrazioak herritarrei zor dien errespetuaz, eta nabarmena da, modu berean, arazoa ez dela konpontzen zuzenketa batzuekin. Konponbide bakarra da emakida berriro ateratzea, aldez aurretik eragindako eragile guztiak kontuan hartuta. Hau da, udalerriak, sindikatuak eta erabiltzaileak.

ehbildu

Esan gabe doa, aurreikusten diren zerbitzu murrizketak ez direla onargarriak, ikuspuntu ekonomizista batetik ezarrita daudelako. Eta ez duela kontuan edukitzen herritarren beharrak mugikortasun jasangarriaren ikuspuntutik.

Horregatik guztiarengatik, Lasarte-Oriako EH Bilduko Udal Taldeak ondorengo mozioa aurkezten du Udal Batzarrak eztabaidatu eta onartzeko:

1.- Lasarte-Oriako Udalak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari bertan behera utzi dezala "Tolosa, N-I, Buruntzaldea eta Donostiako loturak" izeneko bidaiarien garraiorako zerbitzuaren emakida.

2.- Lasarte-Oriako Udalak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari ireki dezala prozesu bat sindikatuekin, erabiltzaileekin eta inplikaturako udalerriekin zerbitzuaren emakida berriro lizitatzeko aldera.

Lasarte-Orian, 2017ko azaroaren 7an

EH Bildu Udal Taldea

